

*Ezkiotzako Henri Aldizkaria*

II. Aldia - 46 zenbakia  
2004. urteko apirila

# Udaberri!

**Udaberriaren  
zain!**



# ALBISTEAK ALBISTEAK ALBISTEAK ALBISTEAK ALBISTEAK ALBISTEAK

## IGARTUBEITI BASERRIA

Igartubeiti baserriaren inguruko proiektua geroz eta aurrera-tuago dago. Azkeneko pausoa interpretazio zentroa eraikitze-arena da. Baserrira bisitan etortzen diren pertsoneri bertan sartu aurretik han ikusiko dutenaren hainbat xehetasun azal-tzea da zentro berri honen helburua. Eraikuntza lur azpian egongo da eta bere gainean inguru horretan hain beharrezko-ak diren aparkalekuak izango dira. Eraikuntza honen barrutik paisaia zoragarria ikusteko aukera ere izango da, aurrealdean (Ezkiora eta Itsasora begira) kristalera erraldoia izango du eta.



## BEASAIN-DURANGO ERREPIDEA

Herritar guztiok egunero ikusten duzuen ez, badoaz aurrera errepide berriaren obrak. Martxa onean badoaz ere, badirudi atzerapena izango dela amaitzeko orduan. Hasiara batean obrak ekainerako amaituko zirela esan bazuten ere, badirudi azaroa izango dela bukatzerako. Honen arrazoia bi gunetan aurkitu dezakegu: alde batetik, Alegia ingu-ruan mendiari eusten uste baino lan handiagoak dituzte, eta, bestalde, Zumarraga inguruan, garai batean Orbe-go-zoren hondakindegia zegoen tokian, aurreikusi gabe zeuden hainbat arazo sortu da.

## EZKIOKO ETXEBIZITZAK

Badira bizpahiru bat urte Ezkion zenbait etxebizitza egiteko asmoa agertu zela. Kasu batzuetan erabat berria eginez eta beste batzuetan lehengo etxean bigarren bat ateraz. Horrez gain, hotel-jatetxe txiki bat eraikitzeko asmoa ere aspalditxokoa da. Eskaera hauek denak aurrera era-mateko Arau Urbanistiko-en aldaketa beharrezkoa



zen eta aldaketa horiek izan dira erantzuna luzatzeko arrazoi. Aldi berean, Udalari iruditu zaio (eta agian beste guneetara ere zabaldu litekeen proposamena da), eraikuntza hauek egitearen interesa aprobetxatuz, herri-guneko urbanizazioaren hobe-kuntza egiteko mementoa izan litekeela eta interesatu guztiekin hitzarmen bat sinatu du, bakoitzak dagokion heinean bere ekarpena egiteko. Horrela, etxeak egiteaz gain, auzo-gunea txukunduko da.

# Eup!

## 46.

**ALE HONETAKO  
KOLABORATZAILE ETA  
PARTEHARTZAILEAK:**

Miren Azpiazu  
Izaro Beitia  
Joxe Etxeberria  
Aitziber Etxezarreta  
Miren Iturralde  
Alaitz Juantorena  
Fermin Leizaola  
Iñaki Mendiguren  
Pilare Mujika  
Jon Osinalde  
Aitor Zaldua  
Ane Zabaleta  
Eneko Zabaleta

LEGE GORDAILUA SS-288/93  
ISSN • 1133 - 1941

Konposaketa eta inprimaketa  
Gertu inprimategia, OÑATI

**Eup!**ek ez du bere gain hartzen  
bertan adierazitako esanen eta  
iritzien erantzunkizunik.



**EZKIO-ITSASOko Udalaren**  
diru laguntza jasotzen du.

## ALBISTEAK ALBISTEAK ALBISTEAK ALBISTEAK ALBISTEAK ALBISTEAK

### **BARRIKOTEA**

Joan zen martxoaren 17an, larunbata, lehenengo aldiz "barrikotea" egin zen Igartubeiti zaharrean. Uste baino jende gehiago bertaratu zen, eta han izandako guztioi "aho gozoa" utzi zigun jaiak: giroa ederra, sagardoa bikaina (geuk egina izanda, bi aldiz hobea!), makailao-tortila kategoriakoa... Bihotzez eskertzen zaie lagundu zuten guztiei, eta bereziki, sukaldean, isil-isilik, dena prestatu zuten emakume horiei, urre garbia baino baliotsuagoak dira eta! Datorren urtean, berriro eta hobeto!



### **AHTREN AURKAKOEN ABIAPUNTUA ANDUAGA-SANTA**

**Lutzian.** Apirilaren 8an, Ostegun Santuz, Euskal Herriko 50en bat lagunek, Santa Lutzia Anduaga Elkarte-an egin zuten hitzordua. Izan ere, bertatik hasi zuten 4 eguneko mendi-ibilaldia, trenak kaltetu eta txikituko dituen parajeak ezagutzeko. Mikel Alvarez-ek EUP-i esan zionez, batez ere jendeak elkar ezagutzea eta, Abiadura Handiko Trenak, egiten bada, hondatuko dituen parajeak ezagutzea zuten helburu; baita beren aurkakotasuna adieraztea, eta borrokan segitze-

ko elkar adoretu eta animatzea ere lagun-giro atseginean.

Egia esan, eguraldiak ez zien batere lagundu ez ostegunean ez ondorengo egunetan. Bai, ordea, Mailo Garmendia, Nekane Ugarteburu, Ricardo Bilbao, M<sup>a</sup> Isabel Agirre eta beste zenbait herritarrek, Anduaga Elkarte-an salda beroa, haragi egosia, txorizoa, etab. prestatu baitzieten; bihotzondoa berotuta, kementsu, udaletxe ingurutik, Sagastizabal aldetik, Kizkitzatik, Mandu-biatik aurrera joan ziren ibiltariak.



### **ZORIONAK, ETA ONDO PASA!**

EUPek zorion bero-beroak opa dizkie San Migeletan ezkiotarrei, baita jai-usainean bertara hurbiltzen diren gainerako herritar nahiz kanpoko guztiei ere!

### **TELEFONO-ZERRENDA**

EUP honekin batera, atsegin handiz banatzen dugu etxe guztietara gure ustez guztioi erabilgarri gertatuko zaigun zerbait: etxez etxeko telefono-zerrenda. Normalean izen-deituren arabera egiten dira zerrenda hauek, baina gure artean asko zabaldutako ohitura da baserri-izenez jokatzea. Askotan badakigu baserriaren izena, baina ez han bizi direnen abizena, edota ez telefona noren izenean duten. Zulo hori betetzera dator gaurko "oparixoa", plastiko eta guzti, gehiago irauin dezan. Gerta liteke akatsak egotea. Horregatik, 15 eguneko epea duzue zuzenketarik egin behar bada Udaletxera deitu eta aldatzea eskatzeko. Mila esker Aitziber Etxezarretari hartu duen lanagatik!

### **PERUTIK ESKER ONEZ**

lazko abenduan, eta presaka-presaka astirik ez zegoelako, herritar batzuei zuzenean Perurako laguntza (arropak, jostailuak...) eskatu zitzaizuen. Gainera, Udalak emandako 300 euroekin, sendagaiak eta jostailuak erosi ziren. Guztia bere helmugara iritsi dela badakigu, bihotzez eskertuz eskutitz bat bidali baitute handik.

Aurten ere, Gabon aurretik, beste bilketa bat egiteko asmoa daukagu, asti gehiagorekin eta era zabalagoan. Batez ere, haurrentzako arropak, jostailuak eta eskolako materiala gordetzera animatu nahi zaituztet, benetan esker-tzen dute eta. Aitziber Etxezarreta.

### **HERIOTZAK**

Jose Unzurrunzaga Sasieta. Barretxe baserria. 2004-03-01  
Selva Dalila Molinari Vidal. Santa Luzia. 2004-03-04  
Sabina Arreseigor Aranburu. Kamio Baserria. 2004-03-09  
Pedro Iza Aldasoro. Miraballes Baserria. 2004-04-06  
Victoriano Usabiaga Aranguren. Albitxu-Goikoa Baserria.  
2004-04-10

## **ALTZIBAR** **lorategia**

GABIRIA  
Tel. 943 88 26 80

Haziak  
Bizitegiak  
Lorazaintzarako lurra  
Produkto Fitosanitarioak  
Lore eta Landare naturalak

# Irtenaldia: AEZKOA bailarara, Nafar Pirinioan

Urtero bezala, YARTU Kultur Elkarteak **Fermin Leizaola** jaunarekin antolatua. Hau aurrerapen bat besterik ez da, nahi duenak eguna gorde dezan. Gero banatuko da xehetasun gehiago etxeetara.

**Noiz:** 2004ko ekainaren 19a, larunbata

**Irteera-lekua eta ordua:** Ezkio-Itsasoko udaletxea – 8,30 h. A.M.

**Bidea:** Iruñea – Agoitz – Nagore (Artzibar) – Auritze (Burguete) – Orreaga

**Orreagan** Kolegiata ikusiko da, klaustroa, Sancti Spiritus kapera (XII. m.), Santiagoren edo Erromesen basiliza.- Urregintzako maisu-lanen museoa, horien artean nabarmenduz ebanjelio-liburua XII. mendeko harribitxi eta zilarrezko azal edo estalkiak dituen, erlikitegi gotikoa (“Karlomagnoaren xakea” deitua) eta XVI. mendeko kopia Miramamolinen esmeraldarekin – Kodizea, kantu-liburuak, medikuntza eta astronomiako liburuak, latin-euskara hiztegitxoak, etab.

**AEZKOA bailara** herri hauek osatzen dute: Garralda, Aribe, Aria, Orbara, Orbaitzeta, Hiriberri (Villanueva de Aezkoa), Garaioa, Abaurrepea eta Abaurregaina. Azken herri hau Nafarroan itsas mailatik goren dagoen herria da (1.039 m). Bailarako ekonomia nagusia abeltzaintza eta basogintza da; baita nekazaritza ere.

Iratiko oihanaren oinetan dago bailara hau. Bertan herri-arkitektura interesgarria ikus daiteke: eraikinetan harrizko hormak eta aldapa handiko teilatuak, orain dela gutxi arte



zurezko oholtxoz estaliak, eta ez teilaz (hodi-teilak edo zapalak). Baina paisaia zoragarriaz gain, hemen bitxierna herri batzuetan etxe inguruan dauden aletegi edo garaiak (=gareak) dira. Harrizko disko batzuez buruturiko zutoinen gainean daude eraikin hauek, eta laboreak eta fruituak leku lehor eta haizeztatueta edukitzeko erabiltzen ziren, sagu eta arratoiengandik urrut. Honelako aletegiak garai batean oso erabiliak ziren Europako leku askotan, eta gaur egun oraindik ere bai Asturias-Galizia-Portugal aldean (panera, hórreo, cabazo).

Aipagarriak da, baita ere, Orbaitzetako Ola edo arma eta munizioen errege-fabrika (XVIII eta XIX. mendeetako).

## Martxoaren 14ko hauteskunde-emaitzak

Martxoaren 14ean Espainiako Gorte Nagusietarako Hauteskunde deialdia izan genuen, bertako Kongresua eta Senatua osatzeko deialdia. Jose Luis (Zapatero) edo Mariano (Rajoy) ezarri behar zuten gobernuburu Gorteak aukeratzeko hauteskundeak.

Hauteskunde garaian normaltasuna ezinezkoa dela garbi geratu zen berriro ere; batetik, euskal herritarren zati bati kanpaina egin eta boto legala emateko aukera ukatu zitzaizkion; bestetik, Al-Quaedak hauteskundeetako protagonismoa eskuratu zuelako, Madrileko atentatuen bidez. Azken finean denak hitz egiteko, inor ez entzuteko.

Parte-hartze eta emaitzei buruz zera komentatu behar dugu, Kongresuari dagokionez honako hauek izan ziren Ezkio-Itsasoko herritarrek emandako botoak:

Errolda: 464 hautesle      Boto-emaitzak: 344 (% 74,1)

EAJ-PNV	111
PP	4
PSOE	5
IB-IU	15
EA	76
Aralar-Zutik	34
Orain Autodeterminazioa	94*

\*Boto hauek nulo edo baliogabetzat jotzen ziren.

Duela lau urteko emaitzekin alderatuz, zera aipatu behar dugu: EAJ-PNVk gora egin du, 88tik 111ra, EA berean mantendu da, eta EB-IU 7tik 15era igo da. Ezker Abarztzaleak duela lau urte abstentziora deitu zuen, herritarren % 39,8k eman zuen botoa, eta aurtengo hauteskundeetan abstentzionista haien botoak boto baliogabeen (gehienak), Aralar-Zutik-en eta PNVren artean zabaldu direla dirudi.

# Diru-kontuak

*Ondoren, diru-kontuak doazkizue: Udalarenak, Yartu Kultur Elkartearenak eta Ezkioko Parrokiarenak.*

## Udal aurrekontuak

Udala ari da eman beharreko pausoak ematen 2004. urteko aurrekontua onartzeko helburuarekin. Memento honetan joan zen urteko emaitzak dira aztergai, aurten zenbat diru izango den jakiteko eta zertan gastatuko den erabakitzeke. Joan zen urteko emaitzei buruz esan behar uste baino diru gehiago jaso dela eta, bestalde, gastuak aurreikusitakoak baino txikiagoak izan direla. Honen arrazoia, besteak beste, enpresei egindako kontrol zorrotza da.

Dena den diru-banaketari buruz, Udalak badu hainbat ideia. Hauen artean, bere garaian YARTU kultur elkartearekin egin zen modura, oraingoan BASERRIA BIZIRIK taldearekin lantzen ari dena. Hau da, baserri munduan sortzen diren gaien ardura, Udalarekin batera, talde honek izango du eta, bide batez, urteko aurrekontuetan diru-kopuru bat onartuko da aipaturiko taldeak funtziona dezan.

Udalak kontuan izan nahi duen beste gai bat kirolarena da. Badira herrian hainbat kirolari garrantzitsu eta hauekin batera hainbat kirol egin nahi duten pertsonak. Bi multzo hauen beharrak ezberdinak badira ere, Udalak uste du beharrezkoa dela kirola bultzatu eta garatzea. Horretarako hainbat ekintza ari da aztertzen memento honetan.

Hirigintzak ere garrantzi berezia izango du aurtengo aurrekontuetan. Arau Subsidiarioen aldaketa behin betiko



onartzen denean, berehala hasi nahi da etxebizitzak eraikitzen. Hau horrela izanik, diru-kopuru bat jarri beharko da sortzen diren beharretarako.

Hauek dira, besteak beste, Udalak esku artean dituen aurrerabide batzuk. Dena den, beste hainbat gauza ere badira aztergai eta aurrekontua onartzen den mementoan informazio zabala eta zehatza emango zaie herritarrei.

## YARTU-ren urteko zenbait kultur jarduera (gehien-gehienak Udalaren kargura)

- Martxoaren 13a: Igartubeitin barrikotea: 150 euro
- Maiatzaren 22a: Txentxoren hitzaldia: 150 euro
- Ekainaren 19a: Aezkoara bidaia Fermin Leizaolarekin (laz 180 euro eman zitzaizkion Fermini eta 330 kostatu zen autobusa. Sarrerak ere izaten dira. Defizita Yartuk berak ordaintzen du).
- Ekainaren 23a: San Joan festa: 150 euro
- **Kultura-aldia:** 1000 euro
  - Lehen sorospen edo laguntzak (hitzaldia): Ricardo San Vicente: 100 euro
  - Euskal baserria eta Igartubeiti (hitzaldia): Jakoba Errekondo: 180 euro

### **Ikastaroak:**

#### **- Zeramika:**

**Helduen** ikastaroa: 900 euro (partaideek 30 euro gehi materiala ordaintzen dute)

**Haurren** ikastaroa (2): 1.800 euro (partaideek 12 euro ordaintzen dute familiako)

- **Frutagintza:** 720 euro (partaideek 30 euro ordaintzen dute. Goimen-ek subentzionatuta dago)

- **Txalaparta:** 200 euro

- **Euskara:** 1.000 euro (bost hilabetekoa)

- **Margolaritza:** ???

Joan zen udazkenean sagardoa egiten jendeak sartutako lan-orduen truke, Yartu Kultur Elkarteak **1.224 euro** jaso ditu Foru Aldunditik. Ez da gutxi! Mila esker berriro lagundu zutenei!

## Ezkioko eliz batzordearen 2003ko diru-kontuak

lazko urtearen hasieran, parrokiako kutxan 5.301,76 euro zeuden, kuota eta bestelakoen bidez 854,65 euro sartu ziren; beraz 6.156,41 euro guztira. Gastuak (organojotzailea, eliz garbiketa eta apainketak...) 282,54 eurokoak izan ziren. Beraz, iazko urtearen bukaeran 5.873,87 euro geratzen ziren kutxan. Eta 2004. urterako kuota 30 eurokoa da.

# Aberri Eguna Ezkio Itsason

**Aberri Eguna.** Aurreikusita zegoen bezala, eta azken urteetako ohiturari jarraituz, Pazko-igandez Aberri-eguna ospatu zen herriko udaletxean. Eguerdian ikurrina jaso ondoren, aurrekoa dantzatu zuen dotore asko Zuhaitz Akizuk, bertso-pare ederra bota zuen Antton Fernandez Lasak, Udalaren izenean Joseba Etxezarreta alkateak mezu “instituzionala” irakurri zuen serio demonio, eta Zabalegiko (nahiz eta Zumarragan bizi diren) neska-mutikoen soinu-hots alaien artean, lagunarteko mokadu goxoa egin zuten bertaratuek.

*Bertsolaria: Antton Fernandez Lasa*  
(Doinua: sentimendua sartu zitzaidan)

Egunon eta ongi etorri  
txikizion bailarara,  
parean dudan paisaiak hainbat  
sentipen sortzen dit, hara:  
Abiadura Handiko Trenak  
emango dion pasada!  
Herriai entzun gabe gaur modan  
jarri dute abiada,  
baina ezer azkar behar badugu  
hori elkarrizketa da.

Mila errugabek zuloan pasa  
dute eguna, astea...  
Galindo, berriz, noiz irtengo zain  
zer nolako kontrastea!  
Urtebetean konponduko al da  
herri honen nahastea?  
Hobe genuke alderdi eguna  
aberriari uztea  
ta are hobeto ordurako ja  
bagara herri askea.



## UDALAREN MEZUA

Gure herriarentzat bidegurutzeko diren une historiakoak bizi ditugu. Indarrak biltzeko uneak dira hauek, helburu honekin: Hiritar guztiok, gizon naiz emakume, Euskal Herriarentzat benetako bake eta demokrazia esan nahiko duen, eta gure gizartearen hainbestearainoko ilusioa pizten duen eskenategira eramango gaituen prozesu politikoa irmotzea.

Euskal Herriak kontzientzia nazionalaren jabe den komunitate historiko, linguistiko eta kulturala osatzen du. Nazio bat da. Eta, hala izaki, nazio bati dagozkion eskubide guztiak ditu. Bere nortasun nazionala behin eta berriro ukatzen saiatzen diren bi estatutan kokatuta eta hiru errealitate juridiko-administratibo ezberdinetan konfiguraturata dagoen euskal nazioa osatzen duten lurralde eta biztanleek eskubidea dute beren harremanak artikulatu eta bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko.

Hiritarren borondate librearen ganean bakarrik eraiki daiteke nazio bat. Nazio batek zera esan nahi du: kohesioa, identitatea, balio kategoriak konpartitzea, sentipen kolektiboa, eta denen gainetik, herri baten izana edo ez izana esan nahiko duten desafio nagusiei elkarrekin aurre egitea.

Horregatik, Euskal Herriaren nazio-eraikuntza indar politiko eta sozial guztiak integrazio-ahalegin bat egitera behartzen dituen prozesu dinamiko eta demokratiko bezala ulertu behar da. Euskal hiritar guztion, gizon eta emakumeon, parte hartze eta erabakimenean oinarritutako prozesu gisa.

Gaur, apirilak 11, hitzordu bat dugu euskaldun guztiok, gizon eta emakume. Ospakizuneko eta konpromisozko zita. Aberri eguneko.

Euskal Herriaren etorkizuna bakean eta askatasunean eraiki nahi duten guztiei zuzenduriko gonbita da. Solidaritatean eta dependenzian, irekitasunean eta ez isolamenduan, aurrerakuntzan eta etorkizunaren arian, bere buruaren konfiantzan eraiki nahi duen gizartearen aldeko deia da.

Konpromiso zaharrak berritu eta berriak hartzeko eguna da, konpromiso sozialak, kulturalak eta politikoak; pertsonalak eta kolektiboak. Euskal gizartearen aniztasun sozial eta politikoa errekonozituz, dei egiten diegu herri-tar guztiei Udaletik, erakunde sozial nahiz politiketatik aberri-eguna ospatzeko.

Geure buruan konfiantza dugun neurrian bakarrik irabaziko dugu gure herriarentzat etorkizuna

# Herriko oroimena argazkietan

## Alaitz Juantorenarekin hizketan

■ Iñaki Mendiguren

Alaitz Juantorena Azpiazu, Udaletxe gainera, 23 urtekoa, ingeniari informatikoa izango da falta zaion proiektua bukatzen duenean. Bitartean, INEMek eskaintzen dituen finantzaketa-bide berezi horietako bati esker, eta beharrezko deialdi publikoa egin ondoren, Herriko Udalean aritu da lanaldi erdiarekin 6 hilabetez, eta beste zenbait eginkizunen artean, bat bereziki interesgarria izan du bere ardurapean: Herriko argazki zaharrak biltzea. Berarengana jo dugu zenbait xehetasun eman diezazkigun egindakoaz.



**Eup!: Zein izan da zure lana?**  
**Azaldu prozesua, mesedez**

**Alaitz:** Lehenik etxeetatik argazkiak biltzea, bakoitzari zegokion informazioarekin. Gero argazkia eskaneatu kopia digitalizatuta izateko. Karpeta batzuk sortu baserri bakoitzeko argazkiekin. Eta azkenik aplikazio edo datu-base bat egin, bildutako datu guztiak informatizatuzko.

**Zenbat etxetako argazkiak bildu dira?**

Orain arte 16 etxetakoak, 6 Itsasokoak eta 10 Ezkiokoak.

**Zenbat argazki?**

300 argazki gutxi gorabehera, baina guztien informazio oso-osorik ez daukagu.

**Noizkoak dira gutxi gorabehera?**

Gehientsuenak 1940-60 urte bitartekoak.

**Noizkoa da zaharrena?**

1915 ingurukoa da, Olantzabarrengoa, eta bertan egungo Miren liburuzainaren birraitona eta birramona agertzen dira beren seme-alabekin.

**Zein gairi buruzkoak dira, oro har?**

Ezkontzak, festak (inguruetako erromerietan eginak), famili argazkiak, soldadutzako batzuk...

**Ondo gordeta edo kontserbatuta al daude?**

Bai, oro har, bai. Baina hau jendeari azpimarratzea komeni da, etxean dauzkaten argazkiak ondo gordetzeko: argia eta hezetasuna dira etsairik handienak.

**Oraindik etxeetan ekarri gabe asko geratzen direla uste al duzu? Zer esango zenieke falta diren etxe horietakoei? Garrantzitsua iruditzen zaizu egin den lana?**

Guztiok konturatu behar dugu herriko historia galtzen ari dela, adineko pertsona bat gure artetik joaten denean, informazio aldetik, berreskuratu ezinezko altxor baliotsu bat galtzen da; horregatik oso garrantzitsua da lehenik etxeetako argazkiak ondo kontserbatzea; bigarren, adineko jendeari ahal den informazio guztia ateratzea argazki horietan ikusten denaz. Eta azkenik, guri guzti horren kopia ateratzen uzteko eskatuko diegu, galdu ez dadin eta ondo gordetzeko beste modu bat delako; jakin behar dute kopia egin eta berehala itzuliko dizkiegula argazkiak.

**Zer egingo da argazki horiekin gero? Zer aukera ematen du?**

Lehenik falta den informazioa osatzea komeni da. Ez dakit nola egin daitekeen, baina jendeak hau ikustea ere interesgarria litzateke, ohartzeko zein garrantzitsua den. Argazkiak baserriaren, dataren, gaiaren, pertsona-izenen eta abarren arabera aurki daitezke.

**Argazki bat aukeratu behar bazenu?**

Adibidez, interes berezia dute, nire ustez, desagertutako baserrien argazkiak: Ojartekoek, Etxeberriko Lilikue-renak...

Dударik gabe, balio handiko lan ederra egin du Alaitzek. Baina lan hau ez dago bukatuta. Oraindik argazki asko daude bildu gabe, eta honek jarraipena eskatzen du, noski.

# Gazteak eta Sinesmena

■ Izaro Beitia eta Ane Zabaleta



**G**aur egun heldu batek baino gehiagok kristau-sinesmenari, zehatzago esanda erlijio katolikoari, dagokionez behin eta berriz egiten duen galdera honakoa da: “nola izan da posible horren azkar eta konturatzerako erlijioak gazteen artean eman duen aldaketa? Zein izango da hemendik urte batzuetara erlijioaren egoera gure eta inguruko herrietan?”.

Izan ere, orain dela urte batzuk arte elizak adin guztietako pertsoenez beterik egoten ziren, bai gazte eta baita adinekoez ere. Urteak aurrera joan diren heinean, ordea, geroz eta hutsago daude. Orain, oso arraroa izaten da igandeko mezara gazteak joatea, bertan ikus ditzakegunak, normalean, 40-50 urtetik gorako pertsonak izaten dira.

Gai hau aintzakotzat hartuta, zenbait aldetan informazio bila aritu

ondoren, honako datu hauek aurkitu ditugu: 60ko hamarkadan gazteen %95ek kristau praktikantetzat zuen bere burua eta horietatik %58 igandero joaten zen meza entzute-  
ra. Gaur egun, aldiz, gazteen %33k hartzen du bere burua kristautzat, gainera hauetatik %10 bakarrik joaten da elizara.

Datuek diotena ikusirik, ikerketa honek hipotesi hauek luzatzen dizkigu krisiaren arrazoitzat:

- 1.- Seme-alabei jokabide, sinesmen eta balio erlijiosoa behar beste transmititu ez izana.
- 2.- Bizitzaren sekularizazioa eta erlijioa isilean eramatea zabalduz doala.
- 3.- Eskaintza erlijiosoa, hiru mezu garrantzitsurekin (zentzuarena, salbamenarena eta elkarrekikotasun moralarena), gazteentzat behar bezain erakargarria ez izatea edota ez osotasunean beraienganatzea.

4.- Eskaintza honek ez du adierazten gazteentzat erlijioa fideltasuna eragiteko eta zenbait konpromiso betetzeko bidea denik.

Guk, testuetan aurkitutako hipotesi, arakapen eta zenbait datu alde batera utzita, aurrera begira sortzen zaizkigun hainbat galdera zuengantzen ditugu: Erlijioaren inguruko pentsaerak berriz ere lehengora etorriko al dira? Ala orain bezala jarraituko du burumakur? Aldaketarik ematene z bada, zer gertatuko da iraganean? Jenderik eza dela-eta, itxi egin beharko ote dira gure inguruko elizak?

Bukaerako galdera horiekin loturik beste arazo bat ere ari da ematen Euskal Herrian. Izan ere, jendea mezatarra joateko nork emana egon behar da, hau da, apaiz edota fraideak behar dira. Gaur egun oso urria da lanbide honetara jo nahi duen gizonezkoen kopurua.

# Itsasondoko guneararen eraldaketa

■ Pilare Mujika

Aspalditxotik pausoak ematen hasiak dira batzuk eta besteak Itsason etxebizitzak eginenez, biztanle-kopuruari eutsi eta, ahal izanez gero, zertxobait errekuiperatze aldera.

Gaur egun alkate duguna, **Jose Inazio Etxezarreta**, aukeratu dugu Itsasoko guneararen garapenez gehiago jakiteko, prozesu guztia ondo asko ezagutzen baitu.

**EUP!: Laster ikusiko al ditugu etxe berriak eraikitzen?**

**Alkatea:** Bai, ziur nago hilabete gutxi barru eraikuntza lanak hasiko direla. Momentu honetan beharrezkoa den urbanizazio-proiektua amaiturik dugu eta birpartzelazio-proiektua inskribatzeko zorian dago. Bestalde, etxeen diseinua ia amaiturik dugu. Azken hau erabat bukatzen dugunean jendeari dei egingo diogure proiektua aurkezteko eta interesaturik daudenek izena emateko aukera izango dute. Esan beharra dago Udalaren asmoa eraikuntza-enpresaren batekin partzela batzuen prezioa tasatzea dela. Honen bidez etxebizitza batzuk merkeagoak izango dira eta bertan herritarrek izango dute lehenengo aukera. Azaldu dudanez lan asko dago egin, jendeak zuzenean ikusten ez duena, baina helburua lortzeko benetan beharrezkoa dena.

**Edozeinek esan dezake "bazen garaia!". Nolatan dira hain zailak eta luzeak lan hauek?**

Egia esan, hori dioenak badu bere arrazoi-puntua. Dena den, hirigintza geroz eta zailagoa da. Eman beharreko pausoak eta jarraitu beharreko prozesuak oso luzeak dira eta hilabeteak eta urteak paper artean igarotzen dira. Honi lurzorua erosteko dauden zailtasu-



nak gehitzen badizkiogu, ulertuko dugu nolatan igaro den horrenbeste denbora. Dena den, gustatuko litzaidake esatea, nahiz eta gauzak luzatu, askoz hobe dela prozedura osoa betetzea; bestela, arazo oso larriak sortuko lirateke eta ziur nago aurreratu nahiko genukeen denbora azkenean gure aurka bihurtuko litzatekeela.


**Orain martxan jarriko diren etxeez gain, zein beste proiektu aurreikus dezakezu?**

Ideiak asko dira, baina denen artean bada bat orain gutxi Udalari aurkeztu zitzaiona. Herritar batek Itsasoko goiko Ostatuan hotel-jatetxe txiki bat jartzeari buruz kontsulta egin zigun. Honen aurrean, Udala eraikuntza honen inguruan eta Itsason hotela jartzearen eraginaz azterketa egiten ari da.

Bestalde, esan behar da Itsasoko gazte-talde batek elkarte edo soziedade bat antolatzeke helburuarekin lokal bat eskatu duela. Udala aukera guztiak aztertzen ari da eskari honi ere irtenbide egokia emateko helburuarekin.

**Beraz, zer nolako Itsaso ikusten duzu begien aurrean epe batera?**

Itsaso bizi eta eraberritua ikusten dut. Orain arte izan dituen balio eta xarma galdu gabe baina indarberritua. Etxebizitza berrien inguruan sortu daitekeen mugimenduak, bertako jendeari aukerak emateaz gain, kanpotik ere jende berria erakarriko du. Garapen honen bila bagabiltza ere ez dugu inoiz ahaztu hau lortzeagatik ezin dugula herri txikiaren berezitasuna eta xarma galbidean jarri.



# Gure herriko kirolarien nondik norakoak

■ Eneko Zabaleta

Herriko kirolariak gogotik saiatu dira negu honetan ere, nahiz eta batzuentzat beltz samarra suertatu. Hala ere, pozak gehiago izan dira eta horiekin gozatu beharko dugu. Hona hemen kirolari hauek azken lau hilabeteotan egindakoaren berri labur bat:



## **ARITZ ZUMARRAGA** (16 urte, korrikalaria)

Aurtengo denboraldian ez du zorte handiegirik izan eta pista estaliko garaia ia hutsean pasa du. Entrenamendu gutxiren laguntza medio, parte hartutako lasterketa apurretan ez du bere mailarik onena eman. Hori gutxi balitz, lesionatu egin zen eta ezin izan du orain arte pistarik zapaldu, baina, badu esperantzarik lesioak alde batera utzi eta sasoiari jartzeko.

## **NEKANE LASA** (21 urte, txirrindularia)

Nekane maila izugarria eman du ziklo-kros garaian. Denboraldi aurreko batekin eman dio hasiera Belgika eta Holanda inguruan, bakoitzean bi probetan parte hartuz. Lortutako posturik onena hirugarrena izan du, baina horrez gain besteetan ere 20 lehenengoetan bukatu du. Behin kilometro batzuk eginda, Euskal Herri mailan parte hartu duen guztietan izan da garaile baita bertako txapelketa nagusian ere. Estatuko txapelketa irabazteak eman dio lehendabiziko aldiz mundukoan parte hartzeko aukera, aurreko urtean ere txartela eskuetan izan arren ez baitzuten eraman. Azken hau oraindik buruan zuela, erakutsi du mundu mailan ere hor aurrean ibil daitekeela 27. postu on bat lortu baitzuen.

Hilabete hauetan beste erronka bati heldu dio, mendi bizikleta eta errepidekoa tartekatze asmoa du. Gainera, aipatutako lehenengoan, dagoeneko lau bat lasterketetan aritu da, Euskal Herriko hiruretan irabaziz eta Espainiara irten den bakarrean 10. postua lortuz. Errepidean ez du oraindik probarik egin, baina irrikaz dago arlo honetan ere emaitza bikainak lortzeko.

## **IKER JUANTORENA** (19 urte, txirrindularia)


Ikerrek, ikasketak direla medio, ez du negu honetan behar bezala entrenatzerik izan. Horregatik, denboraldia atzeratu behar izan du, eta ekainaren erdi aldera hasiko da lasterketetan parte hartzen. Afizionatueta bigarren denboraldia duela kontuan izanda, ez da konformatzen helmuga zeharkatzearekin bakarrik, eta, beraz, iraila bitartean postu onen bat lortzen saiatuko da.

## **IÑAKI LASA** (18 urte, txirrindularia)

Ziklo-kros garaia bukatu eta gero, errepidean hasi du burubelarri bere lehen denboraldia afizionatu mailan. Azarotik urtarrila bitartean hiru probetan parte hartu du, errepidean jartzen duten erritmo biziari eutsi ahal izateko iraila bitarteko denboraldian. Bere asmoa aurten esperientzia pixka bat hartzea da eta horretarako bidean da, dagoeneko lau lasterketetan aritu baita.

## **MAITANE ANDUEZA** (17 urte, trialsina)

Maitane lehengo lepotik du burua, aurten ere aurrean harrapatutako guztia irabaziz hasi baita. Kirol-modalitate honetan, txapelketak proba desberdinetan oinarritzen dira eta proba guzti hauetan puntu-kopuru handiena lortzen duenak eskuratzen du txapela. Orain artean Gipuzkoako bakarrik osatu du, proba guztietan lehen postua lortuz, Urretxun, Pasai Donibanen, Erreterian, Hernanin eta Aretxabaletan. Bestalde, Euskadiko txapelketarako puntuagarri den saio bakarra Oñatin jokatu da, hau ere Maitanerentzat izan delarik. Bukatzeko, estatukoari eta ondoren mundukoari helduko dio, baina honetarako maiatzera arte itxaron beharko du, nahiz eta dagoeneko egurra emateko irrikaz dagoen.



## San Migelak 2004

Bertsoa: Ane Zabaleta  
Doinua: misiolari baten moduan

Haur, gazte, heldu zein edadeko hasi gaitezen prestatzen, egun berezi bat da gainean Maiatzak 8, hain zuzen. Nola afaria, ume jolasak, meza, pelota, datozen begirale huts ez izan eta parte hartzera goazen San Migeletan ezkiotarrok festara bildu gaitezen.



**ERRETEGIA  
AGIRRE ETXEA  
SAGARDOTEGIA**

St. Luzia suzoa, 50  
Tfnos. 943 72 59 87  
EZKIO ITSASO



**Ezkioko Ostatua**

Especialitatea:  
**ARKUME ERREA**  
++++  
Tel. 943 72 82 67  
**EZKIO**



**ITSASOKO  
OSTATUA**

Tfno.: 943 88 03 15  
**ITSASO**



**Mandubiko Benta**

Tel. 943 88 26 73  
**MANDUBIA**



Edificio Labekoa ·  
Bº Santa Lucía, s/n ·  
E-20790 Ezkio-Itsaso  
labekoa@terra.es ·  
Tel. 943 722 552 ·  
Fax 943 726 050

**Eup!**

### LEHIAKETA

**Aurrekoa:** Zein da argazkiko baserria? Zuzen erantzun duzuen guztion artean —Errota baserria zela, alegia— zozketa egin, eta oraingoan zori ona bertako, hau da, Errotako Itziar Etxezarreta-rentzat izan da. Bejondciola gure andereño pertxentari! Eta jakin beza bi afari ditue-la zain Ezkioko Ostatuan. On degizuela!

**Hurrengoa:** Zein da argazkiko baserria? Zuzen erantzuten duzuenon artean, ohi bezala, bi afariren zozketa egingo dugu, oraingoan Itsasoko Ostatuan gozatzeko. Hilabeteko epea duzue erantzuna azpiko txartelean idatzi eta Santa Lutzia Zaharreko gure gutun-ontzian uzteko. Animo, gutxietan izango duzue-eta honelako maukarik!

Erantzuna: .....

(Neure) izen-deiturak: .....

Helbidea: .....

Tel. ....



**Eup!**

# ARGAZKI ZAHARRA




**Santa Lutzia-Anduagako eskolako neska-mutikoak, 1968. urte inguruan, gaur egun herriko jaun-andre ospetsu bihurtuak**

(Ezkerretik eskuinera)

**1. Atzeko ilara:** Belen Bereziartu, Anduagaberri; Iñaki Etxeberria, Iribarrentxiki; Itziar Etxeberria, Iribarrentxiki; Mikel Azpiazu, Miranda; *M<sup>o</sup> Luisa Lopez (maistra)*; Sagrario Urban, Kapotegi; Mailo Azpiazu, Miranda; Edurne Iturbe, Txoritegi; Mailo Garmendia, Santalutzizar.

**2. Erdikoa:** Marisa (maistraren alaba), M<sup>o</sup> Rosa Urban, Kapotegi; Garbiñe Oiarbide, Kapotegi; Fernando Urban, Kapotegi; Arantxa Azpiazu, Miranda; Gurutze Arratibel, Zozabarro; M<sup>o</sup> Jose Etxeberria, Iribarrentxiki; M<sup>o</sup> Jose Azpiazu, Miranda; Jesus Manuel Etxeberria, Iribarrentxiki.

**3. Aurreko ilara:** Xabier Arratibel, Urkiola; Iñaki Arratibel, Urkiola; Jose Antonio Alustiza, Gertutxo; Kizkitza Arratibel, Zozabarro; Maixabel Oiarbide, Kapotegi; Maixabel Azpiazu, Miranda; Josu Arratibel, Urkiola; Juan Luis Arratibel, Urkiola; Lurdes Azpiazu, Miranda.



- HIDROEREINTZAK
- LANDAKETAK
- INGURUGIRO-BERRESKURATZEAK
- MANTENIMENDUAK
- MINTEGIAK, ETAB.

ALTZIBAR BASERRIA Z/G

☎ 943 16 04 24

Fax: 943 16 04 24

Alegi auzoa

20217 GABIRIA

(GIPUZKOA)